



GOIZUETAKO UDALA

GOIZUETA

ZERBITZU ANITZETAKO LANGILEAREN LAN POSTUA OPOSIZIO-LEHIAKETA BIDEZ BETETZEKO DEIALDIAN ONARTUTAKO PERTSONEN BEHIN BETIKO ZERRENDAREN ONARPENA

Alkatetzaren 2022ko azaroaren 24ko ebazpenaren bidez, zerbitzu anitzetako langilearen lan postua funtzionario-araubidean oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia onetsi zen.

Deialdia 2022ko abenduaren 15eko 250 zenbakidun Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu eta inor ez bada baztertua izan, deialdi horren 4. oinarrian xedatutakoaren arabera:

EBATZI DUT

1.-Zerbitzu anitzetako langilearen lan postua funtzionario-araubidean oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdian onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda onartzea, ebazpen honen I. eranskinean azaldutakoaren arabera.

2.-Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Goizuetako udaleko iragarki-taulan eta webgunean argitaratzea.

3.-Probak ondorengo leku, egun eta orduan egingo dira:

-2.1 f) oinarrian eskatzen den euskararen ezagutza agiri bidez egiaztatu ez duten izangaiek euskara proba egin beharko dute. Proba 2023ko maiatzaren 26an izango da, 9:30etan, Goizuetako udaletxean.

-Proba teorikoa: 2023ko ekainaren 26an egingo da, 9: 30etan, Goizuetako udaletxean.

Probak deialdi bakarraren bidez biraliatuko dira. Izangaiek Nortasun Agiri Nazionala edo epaimahaiak nahikotzat jotzen duen beste identifikazio-agiri bat eraman beharko dute, eta kanpoan geratuko dira iragarritako egun, ordu eta lekuetan agertzen ez diren edo aipatutako agiriren baten bidez identifikatzen ez diren izangaiek.

4.-Ebazpen honen berri ematea Goizuetako Udaleko Osoko Bilkuraren honen hurrengo bileran.

Goizuetan, 2023ko maiatzaren 5ean.

Alkateordea,
Alaitz Eskudero Bergara





GOIZUETAKO UDALA

I.ERANSKIÑA-ANEXO I

Onartutako hautagaiak/Personas aspirantes admitidas

NAN ZENBAKIA

73.116.218-T
33.449.911-E
33.447.756-Y
15.990.465-Z
72.680.429-S
72.542.116-R
44.557.255-E
72.689.195-H
72.679.919-B

Baztertutako hautagaiak/Personas aspirantes excluidas

No hay personas excluidas/ez dago baztertutako pertsonik